



MILAKA KORRIKALARIREN TOPALEKUA

Behobia-Donostia lasterketa izango da bihar, 16.300 parte-hartzaileekin, eskualdeko ugari tartean >2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-11-08**

VIURTEA 1.554.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ezkerretik hirugarrena Helena Taberna zuzendaria, atzo Leitzan, filmaren aurre estreinaldian, herritarrekin. A. IMAZ



Ikasle Eguna egin zuten atzo Leitzan. A. IMAZ

Ikasle Abertzaleek euren burua aurkeztu dute Ikasle Egunean,

HERRIAN EGINDAKO FILMA IKUSI AHAL IZAN DUTE HERRITARREK

LEITZA 'La buena nueva' filmaren aurre estreinaldia izan zen atzo herriko zineman; herritar ugari izan zuen ikusteko aukera 7

JESUS ALTUNA
ARKEOLOGOA

«Izozte garaiko gizakien zantzurik ez dago Berastegin»

BERASTEGI Gaur eguerdian hitzaldia eskainiko du Muñagorri eskolan 6




J.S.



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Zurekin elkarlanean



Eskualdeko korrikalari ugari izango dira Behobia-Donostian

Kirola » Bihar izango da 20 kilometroko luzera duen proba; lasterketa sortu zenetik parte-hartzerik altuena izango du aurten, ia 16.300 lagunek eman baitute izena.

ERREDAKZIOA

Bihar izango da Behobia-Donostia lasterketa handia. Bai Euskal Herrian bai Euskal Herritik kanpo ere oihartzun handia duen kirol ekitaldi honetan milaka lagunek hartzen dute parte eta horrela izango da biharkoan ere. Aurtengoan, gainera, antolatzaileek azaldutakoaren arabera, inoizko parte-hartzerik handiena izango du. Tolosaldeko eta Leitzaldeko korrikalari ugari joan ohi dira, eta aurten ere, asko eta asko egon dira prestatzen biharko lasterketan parte hartzeko asmoz.

Pasa den urteko Behobia-Do-



Milaka korrikalari ikusi ahalko dira bihar Behobia-Donostia lasterketan. A. OTEZABAL

«Ez zait gustatzen, baina korri egitea oso kirol erosoa da»

MIKEL MENDIZABAL » Korrikalaria

Tolosa » 26. aldiz jarraian egingo du bihar Behobia-Donostia lasterketa; ordu t'erditik behera egitea espero duela dio.

JOXEMI SAIZAR

25 urte segidan egin du Behobia-Donostia futbolari birziklatu honetara. Marka horrek meritu handia goa du korri egitea ez zaiola gustatzen kontuan izanda. Behin zenbaki borobil hori beteta, pentsatu zuen uztea, baina aurten ere irteeran izango da Mikel Mendi-



HITZA

zabal Iztueta irakaslea (Tolosa 1963), 26. aldiz korritzeko. Eta ondo dagoen bitartean hala jarraitzea pentsatzen du.

Noiz hasi zinen korrika?

Futbola utzi ondoren. Amarotzen 18 urte arte aritu nintzen eta ondoren urtebete Ordizian, Goren mailan. Korri egitea ez zitzaizangustatzen, nahiago nuen palan edo beste zerbaitean lagunekin, baina orduan jende asko hasi zen eta animatu nintzen.

Zein ibiltzen zen orduan?

Martxelo Otamendi, Iñaki Azaldegui, Antton Lekuona, Tarugo Mendieta, Kepa Lesaka, Joaquin

Goikoetxea, Pastelero zizurkildarra, Txuli Alustiza... Bi hauek hil egin ziren. Txuli lehendik ezagutzen nuen, futboletik, baina Behobian egin nuen lagun. Kepa Lesakak ere hemeretzigarren aldiz egingo du Behobia, jarraian izan gabe.

Nolakoa izan zen lehen Behobia?

Entrenatu gabe aterata ginen Xanti Zabala laguna eta biok. Ostiralean Zazpi Bidegara joanda astakeria egin eta igandean karreran aterata ginen. Zapatila normalekin gainera.

Eta geroztik?

Handik urte gutxira Berazubira joan eta serieak egiten eta hasi nintzen. Askoz ere gehiago prestatzen naiz. Eta kirol denda batean zapatila bereziak erosi nituen. Luzaketak ere egiten ditut orain, batez ere entrenatu ondoren.

Nola entrenatzen zara?

Autodidakta izan naiz beti. Hernaniko ikastolan hasi nintzenekin, duela hogeita bat urte, Ur Kirolak arraun taldeko entrenamendu taula lortu nuen eta hura jarraitu: asteburuan 10 kilometro inguruko frogara, astean bitan serieak, tarteka karrera luzeak, aldapan ere ibili... Urte osoan zehar astean pare bat aldiz ateratzen naiz korri egitera eta gero pala, bizikleta edo igeriketa pixka bat egiten dut. Behobiarako, azken hilabete eta erdian astean lau edo bost aldiz entrenatzen naiz. San Esteban auzoko krosa ere beti egiten dut.

Eta zein da zure marka?

Lehenaldian 1.37 egin nuen eta ho-

nostian 14.536 lagunek eman zuten izena, eta horietatik 12.723k bukatu zuten proba. Aurten 16.300 izan dira izena eman dutenak, beraz, 1919. urtetik, hau da, lasterketa sortu zenetik parte-hartze handiena izango du, 20, 2 kilometroko luzera duen lasterketak.

Pertsona ezagun ugari hartu ohi dute parte, eta kirolari eta atleta handiek ere bai; aurten, bertan izango dira, esaterako, Julio Rey eta Chema Martinez espainiar atleta ezagunak. Martinez bestetan ere izan da, eta azkeneko hiru Behobia-Donostiak berak irabazi ditu.

Egungo denbora onena (59.19) Alberto Juzdadok (Espainia) egin zuen 1996an. Emakumezkoetan (1.08.54), Rocio Riosek (Espainia) egin zuen, 1998an. Probaren lehen garailea, 1919. urtekoa, alegia, Juan Mugerza (Elgoibar) izan zen; 1.17.50eko denbora egin zuen.

Eskualdekoak ere bikain

Eskualdeko ehunka korrikalari aritzen dira urtero proba honetan, eta horietatik askok saillapeneko lehen postuetan amaitzen dute. Pasa den urtean Ramon Otegi gazteluarra izan zen gizonetzkoetan eskualdeko azkarrena ordu bat eta sei minutuko denborarekin, eta saillapen orokorrean 13. postuan geratu zen. Emakumezkoetan, berriaz, Loitzun Sanz ibartarra izan zen eskualdeko azkarrena.

gei ta piko urtetan ordu t'erditik behera ibili naiz, marka pertsonala 1.21ean jarriz. Pasa den urtean, 25. edizioa egiteko, asko entrenatu nuen, sei kilo jaitsi nituen, baina bezperan gaizki jarri nintzen. Gau oso txarra pasatu nuen. Emazteak ez ateratzeko esaten zidan. Joan nintzen, ateratzera animatu eta 1.40ean bukatu nuen, nire marka txarra 25 urteetan. Nerbioiak izango ziren.

Eta aurten, nola zaudé?

Ondo prestatu naiz baita ere. Ordu t'erditik behera egitea espero dut bihar.

Badu meritu 25 urte jarraian egiteak.

Gainera ez zait gustatzen korri egitea. Kirola egiteagatik egiten dut. Eta horretarako korri egitea oso erosoa da. Nahi duzunean egin dezakezu, ordutegirik gabe, beste inoren zain egon gabe. Denbora asko ez da behar. Mendiko martxa bat prestatzeko denbora gehiago duela hogeita bat urte, Bestalde, zorte handia izan dut lesioekin. Izaten ditut, baina data hauek iritsi izan direnean beti ondo egon naiz. Baita XIV Orduko Martxan eta Oargiren Txirrita Martxan. Bi hauetan ere ez dut hutsik egin urte hauetan.

Maratoia probatu al duzu?

Bai, behin egin nuen maratoia, probatzeagatik, Donostian egin zenean Munduko Kopa, 93an edo. Luzeegia da. Behobia ere luze xamarra egiten zait orain, 10 kilometroko probetan hobeto ibiltzen naiz.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Asteasu edo Zizurkil inguruko emakume bat behar dugu gauetan amona bat zaintzeko. Deitu 615 79 09 65ra.

SALGAI

■ **Etxea.** Etzebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin beharra dago. Telefonoak: 657 23 00 11 eta 634 91 94 82.

@ **'Zurea da hitza'.** Zure inguruko berriak, kexak, iradokizunak... sartzeko aukera ematen dizu dugu webguneak. Zurea da hitza izeneko atalean. Hauek Interneten izango dira ikusgai, eta horretaz gain, ostiralean ere argitaratuko dugu egunkarian. Zurea da hitza izeneko atalean. Hauek Interneten izango dira ikusgai, eta horretaz gain, ostiralean ere argitaratuko dugu egunkarian. Zurea da hitza izeneko atalean. Hauek Interneten izango dira ikusgai, eta horretaz gain, ostiralean ere argitaratuko dugu egunkarian. Zurea da hitza izeneko atalean. Hauek Interneten izango dira ikusgai, eta horretaz gain, ostiralean ere argitaratuko dugu egunkarian.

www.tolosaldekohitza.info

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK




Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Laugarren postuan daude horitxoak azken garaipenari esker

Tolosa » UZ S. Coop. urretxuarren aurka 5-4 irabazi zuten; hurrengo bi partidak gogorak izango dira.

ERREDAKZIOA

Derbi bizi eta orekatua ikusi ahal izan zuten pasa den larunbatean Usabalera hurbildutako zaletuek. Laskorainek sailkapeneko azken postuetan dabilen UZ S. Coop. urretxuarraren bisita jaso zuen eta pentsatu zutena baino arazo gehiagoekin izan bazen ere hiru puntuak Tolosan gelditu ziren. 5-4koa izan zen azken emaitza.

Partida oso zaila izan zen horitxoentzat, urretxuarrak «lanerako eta sufrimenterako prest» etorri baitziren Usabalera. Hala, taktikoki, jokoa ekimena laskoraindarrei utzi eta atzekaldean kokatu ziren, kontraerasora min egiteko eta baloi geldituko estratejiari etekina ateratzeko asmo argiarekin.

Laskoraintentzat izan zen baloiaren jabetza, eta eraso posizionalan pazientziak aritu ziren urretxuarren defentsa zonalaren aurka. 3-1 eta 2-2 kopapenak txandakatuaz gol aukera dezente sortu zituzten, baina ez zuten baloia sarreratzen asmatzen.

Estreinako gola urretxuarren aldekoa izan zen, korer bidez sarturiko; Telletxeak, bere aldetik, bi golekin etxeok aurreratu bazituen ere, hurrengo jokaldian eta berriro korer baten bidez urretxuarrak binakoa sartu zuten.

Aurkariak berriro aurretik

Atsedenen ondoren ere urretxuarrak izan ziren 2 eta 3 aurreratu zirenak kontraeraso bat baliatuz. Laskorainek berdindu egin zuen markagailua, baina beste kontraeraso batean urretxuarrak aurreratu ziren. Partidak gero eta zailagoa zirudien Laskoraintentzat, baina markagailuari buelta ematea lortu zuten; Barriolak egin zuen launakoa eta Telletxeak, berri, 5-4koa. Albiste txarra Murgiren lesioarekin batera, azken unean izan zen hika mika izan zen, eta ondorioz, Barriola eta Alonso entrenatzailea kaleratuak izan ziren urretxuarrak jokalaritza batekin batera.

Usabal kideledegian ondorengok aritu ziren: Javi delegatua, Alonso entrenatzailea eta Endika, Barriola, Saldias, Gil, Amatriain —hasierako bostekoa—, Telleria, Telletxea, Murgi, Zabala, Zubillaga eta Urko jokalariek.

Laugarren kokatu eta gero Laskorainek datorren bi jardunalditan sailkapeneko bigarrenaren eta hirugarrenaren aurka jokatu beharko du, eta partida garrantzitsu horiei baxa ugariarekin egin beharko diela aurre.

Olaederrakoak laugarren, Gipuzkoakoan taldekako eran

Mahai Tenisa » Olaederra kiroldegian izan zen txapelketa; antolatzaileek «oso giro ona» izan zela nabarmendu dute.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako absolutu mailako Mahai Tenis Txapelketa jokatu zuten iragan asteburuan Villabonako Olaederra kiroldegian.

Taldekako modalitatean eskualdeko Olaederra klubeko bi taldek hartu zuten parte. Emiliano Anton, Jota Urquizu eta Txema Armentiak osaturiko A taldea laugarren postuan geratu zen; txapelketa ona egin zuten, eta soilik txapelkun geratu zirenen aurka ezin izan zuten, hau da, Irungo Leka Enea A taldekoean aurka. Bigarren Atletico S.S. taldekoak geratu ziren, eta laugarren Lekea Enea B taldea sailkatu zen.

Eskualdeko bigarren taldea, hau da, Olaederra B taldea, Raul Lopez, Ion Caminos eta infantil mailako Beñat Izagirrek osatu zuten; hauek zortzigarren postuarekin konformatu beharra izan zuten.

Bestalde, larunbat arratsaldean binakako modalitatearen txanda izan zen. Hemen San Vicente-Rodríguez bikotea geratu zen lehena, Gomez-Martinez bigarren eta



Olaederra kiroldegian jokatu zuten txapelketa iragan asteburuan. HITZA

Santamarta-Alonso hirugarren, guztiak ere Leka Enea taldekoak. Olaederrako Emiliano Anton eta Jota Urquizu bikoteak bosgarren postua lortu zuten, eta Ion Caminos eta Raul Lopez hamargarren.

Banakakoan hamargarren

Igande goizean banakako eran lehiatu ziren. Olaederrako final zortzirenetara iristea lortu zuten, Jota Urquizu hamargarren geratu zelarik. Hemen ere, Leka Enekoak gailendu ziren, taldeko Iker Martinezek irabazi baitzuen, Victor Santamarta geratu zen biga-

rren eta Sergio Rodrighez hirugarren.

Oro har giro polita izan zela, eta antolaketa aldetik ere guztia ondo atera zela aipatu dute antolatzaileek.

Bestalde, gaur arratsaldean bigarren mailako taldeak Donostiako SDC Etxadi Super BMren aurka jokatu du Usabalen. Lehen mailako taldeak, berriz, Bizkaian jokatu du CD Artxandako TMren aurka. Halaber, gaur hasiko da Usabalen eskolarteko mahai tenis txapelketa. Irabazleak Gipuzkoako txapelketarako sailkatuko dira.

Martxan da Galtzaundi Euskara Taldearen atari berria

Komunikabideak

Eskualdean gertatzen diren berriak eguneratzeari eman nahi diote garrantzi berezia.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi eskualdeko Euskara Taldeak webgune berria du, hau da, www.galtzaundi.com ataria berri du. Galtzaundi Euskara Taldean eta Tolosaldean sortzen den informazioaren erakusleho izan nahi duela azaldu dute bertako kideek, «edukiz betetako atari dinamikoa izango delarik».

Hala, bi eginkizun nagusi izango ditu atariak: batetik, euskara taldean antolatzen diren ekimenen berri eman eta hauek zabaltzea, eta bestetik, Tolosaldean egunero jatzotzen denari jarraipena egitea. «Aldi berean, webgune berria Internet euskarazko edukiz janzteko Galtzaundik duen konpromisoaren isla ere bada».

Edizio jarraitua izango da ekimen berri honen erronka nagusie-



Galtzaundi Euskara Taldearen webgune berriaren itxura. HITZA

tako bat; «etengabe berritzen joango gara eskualdean gertatzen denarekin, eta horrela hamabostekarian sartu ezin ditugun albisteek lekua izango dute».

Eguneko albisteez gain, pantailaren goialdean egongo diren atezotzen denari jarraipena egitea. «Aldi berean, webgune berria Internet euskarazko edukiz janzteko Galtzaundik duen konpromisoaren isla ere bada».

lean, esaterako, Galtzaundi hamabostekaria ordenagailuan irakurtzeko aukera izango da; *normalizazioa* atalean euskararen alokero egitasmoak landuko dituzte; *kultura* atalean berri, Euskara Taldeak antolatutako ekimenen berri emango dute eta *agenda* atalean eskualdeko kultur ekitaldiak azalduko dituzte. *Estekak* atalean, interesgarri ikusten dituzten webguneetara lotura jarri dute, eta bazkideak atalean *bazkide* egiteko aukera izango da.

Kontsumoaren ohiturak aztertuko dituzte etziko bileran

Tolosa » 600 laguni egindako inkestean emaitzen berri emango du Merkataritza Foroak.

ERREDAKZIOA

Tolosako Merkataritza Foroak (Tolosako merkataritza elkarteek, hau da, Igarondo eta Alde Zaharra Dendak elkarteek hartzen dute parte) enpresa bati inkesta bat egitea agindu zioten, «bezeroen kontsumo ohiturak ezagutzeko, eta ordutegiaren egokitasuna ikusteko» helburuz.

Inkesta hori 600 lagunei egin zitzaizen eta emaitzak jaso dituzte dagoeneko. Ondorioz, Tolosako merkataritzako sektore osoari proposamen jakin bat egin nahi diote, «merkataritzak erantzun diezaion bezeroak eskatzen duenari. Azterketaren emaitza eta ondorioen berri emango dute etzi egingo duten bileran, 20:15ean, Kultur Etxean.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbol: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxi: 943 670420

Taxi (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalaitzainza: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Flemingo etxebizitza tasatuetarako onartuen zerrenda ikusgai dago

Hirigintza » Hilaren 17an egingo da hamar bizitzentzako tasatuen zerrenda; orain, hilaren 13ra arte erreklamazioak egiteko aukera dago.

ERREDAKZIOA

Hilaren 17an egingo da Fleming 3. Hirigunean eraiki diren 10 etxebizitzak tasatuen zerrenda. Hala, Villabonako Udalak jakitera eman duenez, dagoeneko ikusgai da udal txeko iragarki taulan zozketarako onartu eta baztertu diren herritarren zerrenda.

Zerrenda hilaren 13ra arte egongo da ikusgai. Honenbestez, egun horretan amaituko da erreklamazioak egiteko epea. Hauek Villabona Lantzen SAren bulegoan aurkez daitezke. Aipatu bezala, zozketa hilaren 17an egingo da, udal txeko batzar aretoan, 13:00etatik aurrera.

Etxebizitza hauetan izena emateko epea urriaren 13an ireki zen, eta 30ean itxi. 18 egun beranduago berriz, zozketa egingo da.

Etxebizitzen ezaugarriak

Flemingo etxebizitzak bezala ezaugarritzen den eraikinean, tasatuak izatean, Udalak ezarritako prezioa izango dute eta merkatuko prezioa baino baxuagoa. Hain zuzen, babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) moduluaren prezioa bider 1,7 egineraz ateratzen den prezioa izango dute. Eusko Jaurlaritzak modulu horren zenbatekoa aldatzeaz dago eta horregatik oraindik ezin da zehaztu zein izango den zehazki etxebizitzaren prezioa.

Hamar etxebizitzak batez beste azalera erabilgarria 96 metro koadrokoa izango da. Txikiak 89,15 m² izango ditu eta handiak 97,55 m². Etxebizitza bakoitza bere trasteleku eta garajearekin erosi beharko dira.



Gurea zinemaren ondoan kokatuta daude Fleming eremuko 10 bizitzak. I. G.

Billabonatar bat hil da A-15 errepidean zihola, autoa iraulita

Villabona » Atzo, 13:15 inguruan gertatu zen, Alesbes herriaren parean; istripua gertatu eta hiru ordu geroago hil zen.

ERREDAKZIOA

Villabonako bizilagun bat hil zen atzo arratsaldean, Nafarroako AP-15 Autopistan zihola errepideetik irtenda, Alesbes (Nafarroa) herriaren parean.

Nafarroako Gobernuak atzo jakitera eman zuenez, 13:42an gertatu zen istripua autopistako 24. kilometroan. 4x4 autoa errepideetik

irtin zen eta irauli egin zen, errepide erdian geratuz.

Autoan ziholan pertsona bakarra, Villabonako bizilaguna, Tuterako Sofia Erregina Ospitalera eramane zuten ambulanziaz medikalizatu batean, baina hiru ordu geroago hil zen ospitalean bertan.

Lanetik kanpo zegoen foruzain batek eta mediku batek ikusi zuten Mitsubishi Monteroaren istripua, eta horiek izan ziren hasieran zauritua artatu eta SOS Navarrara deitu dutenak.

Osasun zerbitzuez gain, Foruzaingoaren bi patruila bertaratu ziren eta istripua eragin zuten arrazoiak ikertzen ari dira.



AHTren eraginak mintzagai

TOLOSA » Abiadura Handiko Trenaren aurkako asteburua hasi dute Otxabi elkarteak, Sanblasipiko Gazte Asanbladak antolatuta. Atzo iluntzean, esaterako, Ekologistak Martxan elkarteak kide bat izan zen, ho-

nek, proiektuaren inguruan duen iritzia azaltzen. Berarekin batera izan zen, egitasmoak zuzenean kalteztzen duen lagun bat. Gaur, berriz, egun guztian zehar izango dira ekitaldiak. I. TERRADILLOS



33 urte eta gero, oraindik gogoan

TOLOSA » Maroko Sahararik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat lelopean, elkarretaratzea egin zuten hainbat lagunek Tolosako Plaza Zaharrean. Ekintza honekin, eta antolatutako

beste hainbatekin, Martxa Berdearen eta Madrilgo akordioaren 33. urteurrena gogoratu nahi dute Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizikoek. Beraien hitzetan, data hau salatu behar baita, eta ezin da ahaztu. I. I.

Inauterietan eragina izango dute kolektorea egiteko lanek

Tolosa » Lanen ondorioz egin beharreko aldaketan inguruen mintzatzeko batzarra egin du festa batzordeak.

ERREDAKZIOA

Hurrengo Inauterietan begira jarri dira festa batzordekoak. Herenegun batzarra egin zuten, datorren urteko jaietan, saneamenduko kolektorearen obrak direla eta zentzualdaketa aurreikusitako baitira.

Udal ordezkariak eta teknikoak izan ziren bileran, obrarengora be-

herak azaltzeko. Hauek azaldu zuten, lanen eraginez, zurrenik, lau puntutan izango direla oztopoak: Barrena kalean (Larramendiko zubia eta Rondilla Kalea elkartzen diren gunea), Trianguloan eta Iparragirre zinemaren arteko gunean, Foruen etorbidean eta Araba etorbidean. Dena den, azken hau ordu-rako konponduta egongo dela uste dute, eta Foruen etorbidean, aldaketa batzuk eginda, erabiltzeko moduan egon daiteke.

«Oztopo» hauen aurrean, zenbait proposamen aurkeztu zituzten herenegun, hauei aurre egiteko. Alde batetik, karroza, konpar-

tsa eta bestelakoak, toki finko batean jarrita egotea proposatu zuten, eta bestetik, ibilbideak aldatzea. Azken honen aldeko jarrera agertu zuten bileran parte hartu zuten gehienek.

Herenegungoaren ostean, hilaren 20an berriro elkartuko dira, ideia gehiago lantzeko eta hartu beharreko erabakiak eztabaidatzeko. Udaleko ordezkarien esanetan, «jai batzordekoek ulertzen dute egoera, eta denek ere konponduta aurkitzeko jarrerabakorra erakutsi dute». Gainera, azkenik, urte bakarrean izango dute eragina lanek, eta ez bitan.

Laburrak

Galdutako betaurrekoak udal bulegoetan daude

ZIZURKIL • Udaletik azaldu dutenez, Azoka Bereziaren egunean norbaitek betaurreko graduatu batzuk galdu zituen. Udalak behin eta berriz megafoniatik aipatu zuen gaia, baina ez zen inor agertu betaurrekoen bila. Orain betaurrekoak Aurrera Plazako udal bulegoetan daude. Galdu dituenak udal bulegoetara joan edo 943 69 24 95 zenbakira deitu dezake.

Afaria eta gaztain jatea gaur iluntzean

ZIZURKIL • Urteroko ohiturarekin jarraituz, gaur afaria eta gaztain jatea egingo dute Zizurkil Goiko Zentroan, 21:00etan. Entsalada, saiheskia eta ondoren gaztain erreka izango dira, bertsolariak girotuta. Zentroan eman behar da izena.

'Una palabra tuya' eta 'Carlitos', Gurean

VILLABONA • Gurea aretoan asteburu honetan helduentzako filmari dagokionez, *Una palabra tuya* izango da ikusgai, gaur 19:30ean eta 22:30ean; bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean (ikuslearen eguna, eta beraz 3 euro). Haurrei dagokionez, *Carlitos* filma emango dute bihar, 17:00etan.

Kirol Astea antolatzeke bigarren bilera hilaren 11n

ANOETA • Kirol Astea antolatuta nahi dute abenduan, eta ekintzak antolatzeke bigarren bilera hilaren 11n, 19:00etan, udaletxean egingo dute. Herriko elkarteei eta herritar orori dei egiten zaie bertan parte hartzera.

Kilometroetako autoaren zenbaki sariduna 57845 da

IRURA • Kilometroak 2008koek auto baten zozketa antolatu zuten. Lehenengo zenbaki saridunaren jabea ez da azaldu eta beraz beste bat atera dute, hau da, 57.845 zenbakia.

Kaxkagorrek egun pasa egiteko aukera bihar

AIZTONDO • Kaxkagor elkarteak 12-16 urte bitarteko gazteekin Donostia egun pasa antolatu du bihar. Behobia-Donostia lasterketa ikustera joango dira, bazkaltzeko bokatak hartuta. Gero, Zuriola parean, skaten ibiltzeko gunea eta saskibaloian jolasteko kantxa dauenez, bertan ibili edo patinekin bigorrian patinatzerara joango dira. Animatzen diren guztiak, bihar 10:00tan Zizurkilgo plazara joan eta gero trenez joango dira. Norberak bere bidai txartela ordaintzeko 2,60 euro eraman beharko ditu.

Zirko Ttipiaren 'Giriguai' emanaldia gaur, Gurea aretoan

Villabona » Zirko berriaren ildotik doan ikuskizuna da eta familia guztiari zuzenduta dago; 17:00etan hasiko da obra.

ERREDAKZIOA

Villabonako kultur eskaintzaren baitan, gaur arratsaldean haurrei eta familia guztiari zuzendutako emanaldia ikusi ahalgo da Gurea aretoan. Zirko Ttipia taldeak *Giriguai* ikuskizuna emango du, 17:00etan, 3 euroren truke.

Zirko berriaren ildotik *Giriguai* «emozioz beteriko ikuskizun koloretsua suertatzen da», azaltzen dute Zirko Ttipiatik. Malabareak

musika, dantza, publikoaren parte hartzea, hau dena, «umore onez horniturik».

Pertsonaiak «betiko zirko tradizioan errotuta daude baina itxuraz nahiz hizkuntzaz gaurkotatuz azaltzen dira», diote. «Ikusleekin batera, Zelenina, Pibo eta Pupilak mundu bitxiak eta harrigarriak sortzen dituzte».

Giriguai emanaldian, «ikusizuna ongi burutzeko ardurak Zeleninari dagokio, Pibo adorea da eta Panfleta borondatea», zehazten du taldeak. «Hiru pailazo, hiru inozentzia, munduari hiru begirada. Hirurek errealitateari egokitzeko ezintasuna islatzen dute oso iskanbila dibertigarriak sortuz», gaineratzen dute.



Giriguai emanaldiaren bi eszena. HITZA

Eskualdeko hiru pultsulari Siziliako Nazioarteko Txapelketara

Halterofilia » Martinez, Sasiain eta Kortajarena Euskadiko selekzioarekin joango dira nazioarteko txapelketa horretara.

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra Halterofilia taldeak hainbat txapelketetan parte hartu du azken asteotan. Horietako bat izan da Euskadiko III. Opena, absolutu mailan. Euskal Federazioen Jaialdiaren baitan izan zen Opena, Arrigorriagan. Sizilian ospatuko den Nazioarteko txapelketarako baliagarria izan zen eta Euskadiko selekzioak parte hartuko du. Bertan izango dira Danena-Olaederrako hiru pultsulari: Teddy Martinez (lehenengo sailkatua), Jon Sasiain (hirugarren sailkatua) eta Ekaitz Kortajarena (laugarren sailkatua).

Open horretan, gainera, Teddy Martinezek erraztasun osoz irabazi



Teddy Martinez bi denboratan 176 kilo altxatzen Arrigorriagan. HITZA

zi zuen eta 1979tik Miguel Mari Castresanak zuen Euskadiko errekorrak txikituz egin zuen marka berriak ezarri: 137 kilo arrankadan, 176 kilo bi denboratan eta 313 kilo total olinpikoan. Martinezek ezarri duen markaberri hori hobetzen saiatuko dira urte amaite baino lehen.

Egun horretan ere, Euskadiko 17 Urte Azpiko Txapelketa jokatu

zen. Banakako sailkapen orokorrean lehenengoa izan zen Igor Sasiain. Taldekako sailkapen oro-

korri dagokionez, Nafarroa izan zen lehenengo; Gipuzkoa bigarren, Araba hirugarren eta Bizkaia laugarren. Gipuzkoa ordezkatu zuten eskualdeko pultsulariak Iker Hernandez, Iñaki Zubelzu, Kellyam Quintana eta Igor Sasiain izan ziren.

Bestalde, XV. San Fausto Trofeo parte hartu zuten Danena-Olaederrakoek, Basaurin. Banakako sailkapen orokorriari begiratu, taldeko Jon Sasiain bigarrena izan zen, Mikel Quintana laugarrena eta Patxi Hernandez seigarrena.

Azkenik, Adrian Sasiainek Sevilan egin zen Espainako 15 Urte Azpiko txapelketan parte hartu zuen. Zazpigarren postuan sailkatu zuen 56 kilo kategorian. Maila horretan 24 pultsularik parte hartu zutela ikusita, emaitza ona lortu zuen Sasiainek, azaldu dute Danena-Olaederra Halterofilia talkadetik.

Zinema etxean 3

6 DVD euskaraz

berria

naturgas energia

CAJA LABORAL

IZUZTU BOSTEKOA

PILOTA PARTIDUAK

aspepilotas.com

Azaroak 10 • Astelehena 16:30

Galarza V - Merino I
Berasaluze Ix - Beroiz

GONZALEZ - LASA III
OLAZABAL - PASCUAL

Argote // Cabrerizo

Tolosako Beotibar pilotalekuan

E **Elkarrizketa**

JESUS ALTUNA » Arkeologoa

«Berastegin ez dago izozte garaiko gizakien zantzurik»

Berastegi » Arkeologoa jaioterrian, gaur, eskainiko duen hitzaldian herrian izoztaldiko gizakien zantzurik zegatik ez dagoen azalduko du, besteak beste.

REBEKA CALVO

Berastegiko Kultur Asteari hasiera eman diote, eta gaurkoan, gainera, goizetik hasiko dira ekintzak. 12:00etan Muñagorri eskolan herriko Jesus Altuna (Berastegi, 1932) arkeologoa izango baita *Gaurko gizakiaren historiaurrea* hitzaldia eskainiz. Arkeologoa unibertsitateko irakasle izan da urte askotan, eta orain, ikerketalan desberdinen artean, hitzaldiak ere eskaintzen ditu. Bihar gainera, omenaldia ere jasoko du jaioterrian, sari eta omenaldi asko jasotako da Altuna, baina biharko «benetan kuttuna» izango da.

Hitzaldia eskainiko duzu jaioterrian, 'Gaurko gizakiaren historiaurrea' izeneko, zer izango da bertan azalduko duzuna?

Argi dago gaurko gizakiaren aurretik ere beste gizaki batzuk bizi izan zirela eta horren inguruan mintzatuko naiz.

Gizaki modernoak sortu arteko ibilbide horren inguruan hitz egingo duzu, hortaz?

Horrela da bai. Gaurko gizaki modernoak baino lehenagoko gizakiak Afrikan sortu ziren eta handik Hego Asiar eta Hego Europara zabaldu ziren, baina ondoren, hauek denak desagertu egin ziren. Hemen, Europan, desagertu ziren azkenak Neandertalak izan ziren. Baina, hauek desagertu aurretik Afrikan bertan horietako mota batetik gaurko gizakia sortu zuen eta hauek ere, Palestinatik barrena, mundu osora zabaldu ziren, izan ere aurreko gizakiak Afrikan, Hego Asian eta Hego Europan bakarrik zabaldu ziren. Gizaki modernoak Europan orain dela



J. SAIZAR

40.000 urte inguru zabaldu ziren eta hitzaldian puntu honetatik abiatuko naiz.

Zein da bada gaurko gizakiaren aurrekiaren historia?

Neandertalak desagertu zirenean —nahiz eta gizaki modernoak iritsitakoan Neandertalak ere baziren— gizaki modernoak aurrerapen askorekin iritsi ziren, izozte garaian iritsi ziren gainera, eta ondorioz, aurrerapen horiek izozte garaian bizirautea ahalbidetu zien. Besteak ez zuten izozte garaia gainditu. Aurrerapen horien berri ere emango dut hitzaldian, *power point*aren laguntzarekin informazio guztia argi geratzeko.

Zein aurrerapenetaz ari zara?

Harri tresneriaren zein hezur tresneriaren aurrerapenak, artea, erlijioa... Hauen bidez ikusiko dugu nola izoztaldia pasata zer nolako aurrerapenak etorri ziren Ekialdetik. Berastegin zergatik ez diren izozte garaiko gizakirik azaltzen ere azalduko dut.

Zergatik bada?

Kostaldean zabalten baitziren orduan, batez ere. Epelagoa baitzen kostaldeko klima.

Eta zeintzuk izan ziren Ekialdetik iritsi ziren berrikuntza horiek?

Nekazaritza eta abeltzaintza. Eta honetatik asko dago, noski, Berastegin. Bertako zelai ederrak apartak dira eta honetarako. Nekazaritza eta abeltzaintza non sortu ziren azalduko dut eta nola zabaldu ziren pixkanaka gure paraje hauetara. Orduan sortu ziren gainera, Europako lehen arkitekturek: Trikuharriak, lehendabizi, eta hauek pasata burdin aroa hasi zen eta beste hilobi mota batzuk azaldu ziren, batez ere, Gipuzkoako ekialdean eta Nafarroan; Mairubartzak. Hau eta gero Erromatarren garaira iritsiko gara eta hitzaldia hemen bukatuko dut.

Hitzaldia hortxe bukatuko duzu baina jaioterria egindako bisita ez da hor amaituko, izan ere bihar omenaldia egingo dizute herrian. Nola hartzen da honelako omenaldia?

Pozgarria da benetan. Sariak beti izaten dira gogo onez jasoak, baina herrikoia izanda, jaioterriko, askozaz kuttunagoa eta maitagarriagoa da omenaldia. Asteburu polita dut aurretik herrian.

Arimaz kamera orkestra izango da gaur, Ugarten

Amezketak » Tolosako kamera orkestraren emanaldia auzoko elizan izango da, 19:00etatik aurrera.

niz tolosarra da zuzendaria eta txistu bakarlarri moduan Iñaki Letamendia ariko da, oboe bakarlarri bezala Iker Nausia eta klabea Mariaje Rekondok joko du.

Bi zati dituen emanaldia

Arimazek Bachen, Albinonin eta Marcelloren lanak joko dituzte emanaldiko lehen zatian. Bigarrenengan, berriz, Cesar Figueridoren *Uso Txuria*, J. Bello Porturen *Iparragirre oroimen bat*, lau euskal kanta, Benito Lertxundiren *Baldorba* eta Bilintxen omenez *Mando baten gainean* eta *Behin Batean Loiolan* joko dute.

ERREDAKZIOA

Amezketako Kultur Astearen baitan Arimaz Tolosako kamera orkestraren emanaldia izango da gaur, Ugarten elizan 19:00etatik aurrera. Arimaz taldea 1999. urtean sortu zen Tolosako Eduardo Mokoroa Musika Eskolan. Une honetan Kepa Martinez de Albe-

Sailkapeneko buruaren aurkako partidua, gaur

Ibarra » Nafarroako Riberaren kontra ariko da gaur Ibarra areto futbol taldea; 19:00etan Tuteran.

ERREDAKZIOA

Ibarra areto futboleko Lauburu taldea Tuteran izango da gaur, 19:00etan Jesuitas kiroldegian, Riberaren kontrako partiduan. Talde nafarra oraingoz sailkapeneko burua da eta beraz, nahiko partidua izango dela aurreratu daiteke.

L **Laburrak**

Udaletxea itxita egongo da astelehena bitarte

IBARRA » Asteazkena eta osteguna bitarteko gauean Ibarra udaletxean ezezagunek sortutako sutearen ondorioz, udaletxea astelehena bitarte, behintzat, itxita edukitzea erabaki zuen atzo goizean Ibarra Udalak.

Anjel Arrospide Bilbon izango da igandean

LEBURU » Anjel Arrospide aizkolaria igande honetan Bilbon izango den Urrezko Aizkolaritza Txapelketaren Kopan ariko da. Bukatu berri den Ligako lehen lauk lehiatuko dira, hau da, Arrospide, Nazabal, Larretxea eta Azpilikueta.

U **Urteurrena**

I. urteurrena

KARMEN ETXEZARRETA ARSUAGA

2007ko azaroaren 1ean hil zen, Azpeitian, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Haren omeneko urteurren meza izango da BIHAR, igandea, eguerdiko 12:30ean, Azpeitiko Soresuko Sebastian Donearen parrokia elizan.
Aldez aurretik, mila eskerr.



AZPEITIA
2008ko
azaroaren 8a

Seme-alabak eta ilobak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Nahiko lan



» Herrira begira

Aimar Sagastibeltza
Futbolaria

Azkeneko idatzi nunen Liga-ko momentu inportantenetako baten giñeudela azpimarratu nun; izan e garai hontako partidutan ateaten dittun puntun arabera ikusiko da gutxi gorabehera nontsu ibilliko gan. Ba pasa den asteburun Realan kontra etxen galdu ondoren atzera pauso bat eman du, eta oaindik garrantzi handigoa hartzen due datozen partiduk.

Realaz ze esan? Ba lehen mailara igotzea helburutzat dauken talde batek eman beharko luken sendotasun sensazio hoi etzula erakutsi nere ustez. Beño beno, ongi

kokatuk daude. Gañea, ze inportado taldek emandako itxurek partidue irabazi ezkeo? Azken fiñen futbolen emaitza da balio dona, deustako ezto balio aurkarie beño hobeki jokatzek galtzen bada, deustako ez. Beraz, gutxinez puntu bat mezi giñun bezelako baieztapen exkakak balore gabeko tonterik die.

Gure taldera bueltatuz, zoritxarrez ekipoa dauden hiru aurrelarietatik bi lesionatuta daude. Eta hoitatik bat bereziki ikeragari inportantea da guretzako, momentu hontan euki giñezaken bajaik okerrera iñongo zalantzaik gabe. Bere rola bete dezaken ordezkoik eztau ekipoa, beraz bera gabe eongo gan denboa oso luzea ingo zaiulakoan nau.

Bestalde, aurreko asten prentsa-aretorajotea tokatu zetziñ (astero ekipoko bi jokalarj joaten die), kazetarin hainbat galderai erantzutea. Ba egie esan errespetu de-xentea eman zien 6-8 kazetari aurrez-aurre galdeketañ hasi zitzaiz-

kien. Izan e, ligan oaindik debutatu eztau jokalariri galdera nahiko pikantek itteko joera dauka, deklarazio polemikoak bilatu as-

moz, gero zeri buruz idatzie euki dezatean. Holaxeokoak die.

Beño beno, kazetarin jokoan sartu gabe erantzun nittun galderak, ta eztau ongi nik esatea beño nahiko ongi eondu nitzela iruittu zitziñ, jeje.

Azkenik, lau t'erdiko pilota txa-

pelketa aipatuz bukatu nahi nuke. Final erditako ligaxkan atetan gaude eta beste behingoz hor daukeu Abel, lau onenen arten. Harrigarrie da disziplina guzitan erakusten don maila urte osoan zehar, konpetitibidade aparta dauke. Suerte on beretzat.



Leitzako Ikasle Egunean euren burua aurkeztu zuten institutuan Ikasle Abertzaleko kideek. ASIERIMAZ

Ikasle Abertzaleak taldeak Ikasle Egunean euren burua aurkeztu du jai giro ederrean

Leitza » Euskal Eskola nazionala helburu hartuta lan egingo dute Ikasle Abertzaleak taldeko kideek institutuan.

ASIERIMAZ

Leitzako Ikasle Eguna antolatu zuten atzo Ikasle Abertzaleak (IA) taldeak. Goizean Amazabal institutuan IAren aurkezpen ekitaldia egin zuten eta arratsaldean, Gazte-txean, joko, bideo emanaldi eta parranda.

IAren aurkezpen ekitaldia

Institutuko atsedenealdian, 11:15ean, liburutegian 30 bat ikasle elkartu ziren. Bertan, Ikasle Abertzaleko kideek taldearen aldarrikapenak eta helburu nagusiak azaldu zizkieten ikaskideei: «Ikasle Abertzaleak, Euskal Herriko ikasle ezkertiar eta abertzaleen mugimendua da. Gure helburu nagusia Euskal Eskola nazionala da». Baina zer da Euskal Eskola nazionala? Aldarri honen baitan, puntu ezberdinak argitu zituzten: «Euskal Herri osorako proiektu bat da; zazpi lurraldeak bere baitan hartzen dituena. Hizkuntzaz eta edukiz euskalduna da; Euskal Herriko historia osotasunean irakatsiko duena eta eskal kurrikuluma kontuan hartzen duena. Eus-

kal Eskola nazionala, ikasleen hitza kontuan hartzen duena da; inongo trabarik gabe herritar guztiei irekia dagoena. Sexuen arteko parekidetasuna bultzatzen duena eta laikoa dena».

Azkenik, IAren kideek, ikasturte honetarako euren helburuak aipatu zituzten: «azken urteetan hezkuntzatik *infantilismoa* bultzatzen ari dira. Hau da, inguruan gertatzen diren gauzez gero eta beranduago jabetzen dira ikasleak. Horretara bultzatzen gaituzte, guk aldiz aurkakoa nahi dugu eta horretarako urtean zehar ikasleak berpizten saiatuko gara; gaur egun gertatzen ari diren prozesuen inguruko informazioa zabalduaz. Aldi berean, ikasleek dituzten zailtzen inguruan hitzaldiak eta ez-

tabaidak sortzen saiatuko gara». Amaitzeko, IAren kideek ikasleei dei egin zien, taldean eurekin bat egiteko atek zabalik dituztela gogoratu.

Ikasle abertzaleak: 20 urte

Urtero bezala aurten ere Ikasle Eguna nazionala burutuko da. Aurten azaroaren 22an, Erandion (Bizkaia), egingo dute. Bertan IAren 20. urteurrena ospatuko dute.

Ikasle Eguna arratsaldean

Institututik Gaztetxera joan ziren ikasleak arratsaldean. Bertan Musean, mahai tenisean eta Futbolnean aritu ziren. Luntxa egin zuten, eta ondoren, jai giroan irauten zuten goizaldera arte.



Zuzendariaren eskutik iritsi zen

LEITZA » Aurre estreinaldia iritsi zen bezala joan zen atzokoan, ikusmin handiarekin. *La buena nueva* filma ikusteko aukera izan zuten nahi baino herritar gutxiagok. Helena Taberna zuzendaria ere Leitzañ izan zen. Ikusi ez zutenek, Eguberrietan izango dute asetzeko aukera. ASIERIMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Berastegi.** 12:00etan Jesus Altuna herriko semea *Gaurko gizakia-ren historiaurrea* gaiaren inguruan mintzatuko da.

■ **Gaztelu.** Encarni Genuaren eskutik *Galtzagorria* txotxongilo emanaldia eskola zaharrean 18:00etan eta ondoren herri afaria Kontsejun.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Hernaniko taldearen *La mochila* eta *Escapada en solitario* taldearen *En el aire* antzezlanak 22:30etik aurrera ikusgai Bonbeneren.

Zinema

■ **Villabona.** *Una palabra tuya* filma ikusteko aukera, 19:30ean eta 22:30ean, Gurea aretoan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.



Magia eta antzerkiz beteriko arratsaldea

IKAZTEGIETA • Magia eta zientziaren arteko elkarriketa izan zen atzokoan *Magia Teilatuan* antzezlanean, Ikaztegieta ikusi ahal izan zena. Txalo taldearen eskutik, haurrei, eta bide batez, familia osoari zuzendutako an emanaldi interesgarria ikusteko aukera izan zuten herriko kiroldegira

joan zirenek. Magia ona eta gaiztoaren arteko borroka ikusteko aukera ere izan zuten emanaldira joan ziren berrogei lagun inguruk. Udazken Kulturaren baitan izan zen atzoko emanaldia. Bestalde, atzo iluntzean, kultur ziklo beraren baitan, gazteei zuzendutako hitzaldia ere izan zen, *Drogak larrogorritan* izenekoa. Udazken kulturaren baitan, hurrengo ekitaldia datorren ostiralean izango da eta helduei zuzendutako antzerki ikusi ahaliko da. I. GARCIA

A Agurrak



Urte askoan

Inhar Ortíz Vicente (Larraul). Gaur urtebete. Zorionak bihurri, etxeko guztien partetik eta bereziki aita, ama eta Nahiaren partetik.



Zorionak!

Inhar Ortíz Vicente (Larraul). Gaur urtebete. Zorionak eta ea alboan duzun zure birramonaren urtemugak ospatzera iristen zaren.

agurrak urtebeteak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Urte askoan!

Isabel Izeta Gurrutxaga (Tolosa). Azaroaren 2an 102 urte eginak. Amona, zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik. Ginnes errekorra haustekotan? Animo eta segi beti bezain irrifartsu.

943 671 427

estaburuen ostiralean: 10etatik 10etara
buruntzean: 9etatik 14etara

TXALOK
SARRERAK

Grönholm METODOA

Tolosan sarrerak
RAKUN salgai

K